



ELEANIZTUNA ETA EUSKALDUNA, BAITA MUNDU AKADEMIKOAN ERE: POSIBLE OTE?

Ludger Mees

Historia Garaikidearen Katedraduna, Euskal Herriko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: ludger.mees@ehu.es

1. 21. MENDEAN, ELEANIZTASUNA POSIBLEA BAINO BEHARREZKOA DA

Guk bizi dugun gizarte post-modernoaren ezaugarri nagusienetarikoa denbora eta espazioaren mugen desagerpena da. Manuel Castells soziologoak "Informazio-Aroa" izeneko maisu-lanean ederki erakutsi duen bezala¹, egungo hiritarrok orain arte oso urruti geneuzkan errealitateak bat-batean eskuragarri ditugu, eta horiek gureganatzeko ez ditugu lehen bezala bidai luzeak egin behar. Ikuspegi historiko batetik aztertuta, aldaketa izugarria da. Frantses Iraultza garaiko baserritar baten bizimodua guztiz mugatuagoa izan zen. Bere *habitat* normala bere baserria eta horri loturiko lanak izaten ziren. Bere baserrian jaiotzen zen eta bertan ere hil egiten zen. Senideen arteko ohiko komunikazioaren esparruak gainditzeko, bi aukera izan ohi zuen: bata, igandeko mezan, eta bigarrena, herriko edo inguruko azoka egunean. Horretarako nahikoa zuen berak eta bere arbasoek erabilitako hizkuntza eta dialektoa erabiltzea, gainontzeko guztiek horixe bera ere erabiltzen zutelako. Askotan bere bizitza osoan ez zuen bestelako hizkuntza-doinurik entzuten, bere hizkuntza propioaren mugak bere munduaren mugak ere zirelako.

Eugen Weber historialariak ikerketa eredugarri eta dagoeneko klasiko baten bitartez erakutsi du, Frantziako kasua adibide gisa hartuz, gizarte tradizionalaren mugak nola joan ziren zabaltzen komunikabideei, hezkuntza publikoari eta, batez ere, I Mundu Gerrako trintxeretan egindako komuneko esperientziari esker². Izan ere, eta horixe da Weberren tesi nagusienetarikoa, beste milaka soldaduekin eguneroko elkarbizitzaren esperientziak bihurtu omen zituen hiritar frantsesak Britainia, Catalunya, Occitania edota Euskal Herritik zetozen hainbat hiritar. Komuneko etsaiaren aurka borrokan zeudelarik, jakin zuten beraiek ulertzen ez zuten beste hizkuntza bat ere bazegoela Frantzian, agintari militarrek hitz egiten zuten hizkuntza, gainera, eta elkar ulertzeko eta, agian, ejerzitoan karrera egiteko, hizkuntza hori ikasi beharra zegoela.

I Mundu Gerraren trintxera odoltsuetatik 21. mendeko gizartearen egoerara etorritik, garbi dago globalizazioa azkar joan dela aurrera eta hori dela eta, mundua txikiago bilakatu dela. Gaur, Interneten bidez, munduko edozein lekutako informazioa jaso daiteke eta milaka kilometrotara dagoen edozeinekin edozein momentutan harremanetan jar gaitzke. Dena dago lotuta guztiarekin, egungo krisi ekonomikoak egunero erakusten digun bezala, klima aldaketa edo migrazioak bezalako fenomenoak ez aipatzearren. Pentsalari politiko klasikoak landu dituzten eta harrez geroztik gure antolamendu juridiko eta politikoa antolatzen lagundu diguten hainbat kontzeptu zaharkiturik gelditu dira, birpentsamendu eta birdefinizio baten zain. Horietariko bat subiranotasunaren kontzeptua litzateke, horrelakorik gaur egun mundu osoan zehar inon ez dagoelako.

Zer esanik ez dago, ohiko mugak desagertzen diren neurrian eta urrutikotasuna gertutasuna bihurtzen dugun heinean, atzerriko hizkuntza eta kulturekiko gure harremanak ere areagotu egiten direla. Lan merkatuaren mugikortasunak prozesu horretan beste bultzakada bat eman du: gaur egungo jendeak lehen baino gehiagotan aldatzen du bere lantokia eta, bestetik, ohiko ingurumenean lan egiten badugu ere, kanpoko jendea etortzen da gero eta gehiago gure lan-tokira gurekin lan egiteko. Lan harreman horietan komunikazioaren arazoa konpontzea ezinbesteko baldintza da, eta hori dela eta, enpresak edo bestelako erakundeak aspal-di hasi dira beraien langile edo enplegatuen hizkuntza-trebakuntzari arreta gehiago ematen. Beraz, XXI. mende honetan, esaten badugu hizkuntzak ezagutzea beharrezkoa dela ez dugu esan nahi, hemendik aurrera hizkuntzak ezagutzea eta menperatzea hil ala biziko kontua denik eta hemendik aurrera mundu guztiak kondenatuta egongo denik hizkuntzak ikastera. Ez, jende askok jarraituko du itsu-itsu bere hizkuntzari eusten, gainontzekoei jaramonik egin gabe. Halere, jarrera hori beraien kalterako izango da, argi eta garbi. Izan ere, etorkizunean, orain baino gehiago, jakintza eta komunikatzeko gaitasunak definituko baitituzte gizarte-kla-seen arteko mugak, eta zentzu horretan ulertu nahi dut hizkuntzen eza-

Ohiko mugak desagertzen diren neurrian eta urrutikotasuna gertutasuna bihurtzen dugun heinean, atzerriko hizkuntza eta kulturekiko gure harremanak ere areagotu egiten dira.

Zenbat eta hizkuntza gehiago menderatu, zenbat eta informazio gehiagorako sarbidea izan, zenbat eta "global player" gehiago izan, hainbat eta status eta bizi-maila hobea edukiko du pertsona horrek.

Kontua ez da hizkuntza propioak ingelesaren bitartez ordezkatzea, baizik eta hizkuntza propioekin batera zein hizkuntzak zein arlotan eta zein egoeratan erabiltzea.

gupenaren beharra: gizarte klasista berri horretan “eguzkitan” egon nahi duenak, ongizateaz disfrutatu nahi duenak, eta gorako mugikortasunaren aukera landu nahi duenak, hizkuntzak ezagutzeko beharra izango du. Are gehiago: gizartearen sektore askotan, guztietan ez bada, pertsona baten statusa estuki lotuta izango da hizkuntzen ezagupenarekin. Zenbat eta hizkuntza gehiago menderatu, zenbat eta informazio gehiagorako sarbidea izan, zenbat eta “global player” gehiago izan, hainbat eta status eta bizi-maila hobea edukiko du pertsona horrek. Besteak, ordea, alegia, joko horretan jokatzeko borondaterik ez dutenak, gizartean bigarren maila batean geratuko dira, gora igotzeko eta bizi-baldintzak hobetzeko aukera gutxiagorekin. Horrek guztiak esan nahi du jakintza, komunikatzeko gaitasuna eta hizkuntzak izango direla globalizatutako mundu honetan gure gizartearen hierarkiak finkatuko dituzten aldagai nagusiak.

2. BI AURREIRITZI

Hipotesi hau zuzena baldin bada, globalizazioaren inguruan sarritan entzuten diren bi baieztapen errealitatetik at bezala baztertu beharko genukeela iruditzen zait. Alde batetik, tradizio luzea daukan pentsamendu bateratzailea edo uniformizatzailea aipatu behar dugu. Pentsamendu horren oinarriak dagoeneko 20. mendearen 50 eta 60. hamarkadetan antzeman daitezke. Garai horretan, Estatu Batuetako soziologo eta politologo ugari, hain zuzen ere “modernizazioaren teoria” lantzen zutenek, baieztatzen zuten modernizazio sozioekonomikoaren geldiarazi ezinezko garaipenak mundua batu eta homogeneizatu egingo lukeela. Historikoki gertatu omen zen bezala, merkatu-egituren batze-prozesuak kultura, identitate eta hizkuntzen batzea ere ekarriko lukeela zioten. Horrela, pixkanaka, Estatu Batuetako ekonomiak bultzatuta, munduko ekonomia indartsuena zenez gero, berak erabiltzen zuen hizkuntza, ingelesa alegia, beste hizkuntza guztien gainetik nagusituko zela, hizkuntza horiek denborarekin desagerraraziz. Eta teorilari horiek ez zeuden guztiz oker. UNESCO Erakundeak egin berri dituen kalkulu batzuen arabera, munduan zehar gaur egun dauden 6.000 hizkuntzetatik 2.500 inguru egongo lirarteke desagertzeko zorian.³

Hala eta guztiz ere, gaur egun ere badakigu, nahiz eta ingelesaren aldeko erabateko apologia itxia maiz entzuten den, globalizazio prozesua ez dela, eta ez dela inoiz izan, norabide bakarreko ibilbidea, prozesu konplexu eta dialektikoa baizik. Horrela ikusi izan dugu, esate baterako, zalantzarik gabe areagotzen ari den ingeles hizkuntzaren nagusitasunak hainbat lurraldeetan hizkuntza propioaren aldeko interesa, ekimenak eta babes-neurriak ere piztu dituela. Beraz, eta bilakaera konplexu hori laburbilduz, kontua ez da hizkuntza propioak ingelesaren bitartez ordezkatzea, baizik eta hizkuntza propioekin batera zein hizkuntzak zein arlotan eta zein egoeratan erabiltzea.

Lehenago iragarpen okerrarekin loturik, bigarren bat dator. Horren arabera, ingelesaren nagusitasuna eta globalizazioaren dinamika dela eta, euskara bezalako hizkuntza txiek ez dute lekurik, gure gizarte honetan. Antzeko argudioa euskararen bidelagun izan da historiaren epe askotan. Horra hor XVIII eta XIX. mendeko euskal eliteen adibidea. Euskaldunak izan arren, seme-alabak gaztelaniaz edo frantsesez hezi egiten zituzten, hizkuntza horiek modernitatearen hizkuntzak zirelakoan. XX. mendearen hasieran euskara hiltzorian aurkitzen bazen, horren erruduna ez zen izan Madrildik edo Parisetik ezarritako ustezko zapalkuntza, bertako eliteen mentalitatea baizik. Halere, hemen ere historiaren dialektika ikusi daiteke: elite horiek —eta sozialki igo nahi zuten klase ertainetan zeuden beraien jarraitzaileek— hedatu zuten mentalitatearen aurka mugimendu herrikoi zabal bat sortu zen, —nazionalistek bultzaturikoa, baina nazionalismo politikoa baino dezente zabalagoa zena— eta mugimendu horren grinari esker euskara hiltzoritik atera eta, denboraren poderioz, sendabidean abiatu zen, eta bide horretan gaude gaur egun, behintzat Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez. Egun, lan handia egiteko gelditzen bada ere, ikuspuntu historikoan balantzea duina da: azken mendeetan gertaturiko hiztun-kopuruaren etengabeko jaitsiera geldiarazi egin da joera historikoa guztiz aldatuz. Gero eta jende gehiagok badaki euskaraz, eta gazte jendearen artean euskaldunak dagoeneko gehiengo dira. Horrekin batera, euskara sartu da lan munduan, komunikabide modernoetan eta hezkuntza sisteman, baita unibertsitatean ere.

Euskararen berpizkunde hori ezin da, ordea, baloratu soilik termino merkantilista edo utilitaristetan. Beraz, galderak ez luke bakarrik izan behar: nor dauka aukera gehiago lan-merkatuan, euskaraz ikasi duen ikasle batek ala ingelesez ikasi duen batek? Galdera egokia, hauxe litzateke: ez al da hizkuntza propioan ikastea geure identitatea sendotzeko bide garrantzitsu bat? Eta hori egiten badugu, ez al gara azken finean gusturago sentitzen? Eta zoriontsu eta gustura sentitzea, ez al da hori ere baldintza garrantzitsu bat ikasketetan eta gero lan-munduan arrakasta izateko? Eta hezkuntzaren bidez lortu badugu elebidunak izatea —euskaraz eta gaztelaniaz— ez al du esperientzia horrek beste hizkuntzak ikasteko bidea errazten?

3. HIZKUNTZAK, KOMUNIKAZIO TRESNAK EZ EZIK, MUNDU ETA KULTURA BERRIETARAKO ATEAK ERE BADIRA

Jakina, galdera hauek guztiak ezin ditugu hemen banan bana eztabaidatu. Gainera, identitatea eta zoriontasunaren kontuak oso zaila izaten dira objetibatzen. Halere, gaur egungo zientzialariak tesi baten inguruan adostasun handi samarra lortu dute baieztatzerakoan hizkuntzak ez direla komunikazio tresna hutsak. Gure hizkuntzaren hitzak erabiltzen ditu-

*Egun, lan handia egiteko
gelditzen bada ere,
ikuspuntu historikoan
balantzea duina da: azken
mendeetan gertaturiko
hiztun-kopuruaren
etengabeko jaitsiera
geldiarazi egin da joera
historikoa guztiz aldatuz.
Gero eta jende gehiagok
badaki euskaraz, eta
gazte jendearen artean
euskaldunak dagoeneko
gehiengo dira. Horrekin
batera, euskara sartu da
lan munduan,
komunikabide
modernoetan eta
hezkuntza sisteman, baita
unibertsitatean ere.*

Gure hizkuntzaren hitzak erabiltzen ditugu gure mundua interpretatzeko eta sentimenduak adierazteko. Belaunaldiz belaunaldi jasotako esperientziak eta bizipenak hizkuntzaren bilakaeran islatzen dira.

Hizkuntza berri bat ikasten eta gureganatzen dugun bakoitzean, beste jendearekin komunikatzeko ahalmena lortzeaz gain, beste kultura baten ateak ere zabaldu ditugu. Horrek laguntzen digu gure mundu estutik ateratzen, eta beste kultura parametro batzuk erabiliz, geuk daukaguna eta ezagutzen duguna erlatibizatzen.

gu gure mundua interpretatzeko eta sentimenduak adierazteko. Belaunaldiz belaunaldi jasotako esperientziak eta bizipenak hizkuntzaren bilakaeran islatzen dira. Badaude adibide kuriosoak. Hona hemen bakarren bat: Ipar-Groenlandian badago hizkuntza propioa dauka tribu bat (“Inuit”). Beraien hizkuntzan, distantziak ez dira neurtzen kilometroetan edota orduetan, “gauetan” “loan” (sinik) baizik, hau da, zenbat aldiz egin behar dudan lo A puntu batetik B puntu bateraino iristeko. Jakina, eguraldi eta klima oso traketsa eta gogorra daukan eskualde horretan, ez du zentzurik kilometroak edota orduak zehazteko, 100 km egiteko batzuetan bi ordu behar direlako, eta beste batzuetan bi egun. Horrelako esperientziak eta bizipenak barneratuz, hizkuntza gure memoria kolektiboaren tresna garrantzitsua da, ezinbestekoa esango genuke, eta hori horrela bada, hizkuntza gure kulturaren funtsezko osagaia ere bada. Horrek esan nahi, hizkuntza berri bat ikasten eta gureganatzen dugun bakoitzean, beste jendearekin komunikatzeko ahalmena lortzeaz gain, beste kultura baten ateak ere zabaldu ditugula. Horrek laguntzen digu gure mundu estutik ateratzen, eta beste kultura parametro batzuk erabiliz, geuk daukaguna eta ezagutzen duguna erlatibizatzen. Azken finean, ariketa honek laguntzen digu mentalitate ireki eta aberatsago bat lantzen eta, horren ondorioz, hiritar osoagoa egiten.

4. ATEAK ZABALDU, GAZTE GARAITIK

Hizkuntzek hiritar aberatsago eta osoagoak egiten bagaituzte, eta hori dela eta, eleaniztasuna lantzea helburutzat hartzea egokia iruditzen bazaigu, hasteko bi gauza oso argi eduki behar ditugu: bata, hiritar eleanizterako bidea ezin dugula unibertsitatean hasi. Unibertsitateak eman lezake urrats garrantzitsu bat, baina horren arrakasta neurri handi batean askoz lehenago oinarritu behar izango da, haurtzaroan eta gaztaroan. Eta bigarren kontua: lan horretan hezkuntza sistemaren ekarpena ezinbestekoa bada, gurasoen inplikazioak ere garrantzi handia du inoiz eleaniztasunaren helmugara iritsi nahi bada.

Bi puntu hauei dagokienez, aitortu behar dut nire belaunaldiko gazteok abantaila handiak izan genituela atzerriko hizkuntzak gureganatzerakoan bai bizitza pribatuan zein hizkuntza sisteman. Paradoxikoa badi-rudi ere, erraztasun horiek, neurri batean behintzat, Alemaniak izandako historia beltzaren ondorioak izan dira. Izan ere, Hitlerrek eta bere erregimen totalitarioak —bertako biztanle gehienek laguntza aktibo edota pasiboarekin— sortutako hondamendia gertatu ondoren, gerra osteko Mendebaldeko Alemanian bi fenomeno gertatu ziren. Alde batetik, ardura-dun politikoko demokratiko berriek buru belarri ekin zioten Europa Batua-
ren eraikitzeari konbentzitutak zeudelako herrien arteko elkarbizitza eta elkarlana bakearen aldeko bermerik sendoena zela. Eta horrekin lotuta, beste alde batetik, Alemaniaren izenean egindako sarraskiaz lotsatuaz,

aleman askok beraien herria, kultura eta identitateari ihes egiten zioten, atzerriko paisaiak, jendeak, kulturak eta hizkuntzak bereganatzen eta askotan miresten hasteko. Bilakaera hau ez da batere banala, ondorio sakonekoa baizik: Alemania —hobeto esanda: Alemaniako Errepublika Federala— hasiera hasieratik Europa Batuaren motorra bihurtu zen eta, aldi berean, bertako biztanleak bidaiari amorratuak. Nik gogoratzen dut 70. eta 80. hamarkadetan udaran etxean gelditu behar izatea aleman bati gerta zekiokkeen zorigaitzik latzena izaten zela. Alemaniatik atera beharra zegoela, berdin zen nora, eta berdin zen nola, baina Alemania ahaztu denboraldi batean.

Gure gaiari dagokionez, esan dezakegu turismo iheslari honek milaka eta milaka herritarrengan ikasketa prozesu kolektiboan abian jarri zuen: beraiek egindako esperientzia pertsonalei esker, ikasi zuten beste herriak, beste kulturak eta beste hizkuntzak bazeudela eta elkar ulertzeko hizkuntzak jakitea oso garrantzitsua zela. Ez dut estatistikarik aurkitu, baina ziur nago garai horretan Europa mailan alemanok izan garela bidai gehien egiten zuen eta eskura geneukan diruaren parterik handiena bidaie-tan gastatzen zuen herria. Eta ziur nago, baita ere, Alemania izan dela (agian badela) hizkuntza eskoletan hizkuntzaren bat ikasten dabilen ikasle proportziorik handiena izan duena (daukana?). Gure familia ez da izan salbuespena: gure udako opor guztiak Belgikako kostaldean pasatzen genituen eta bertan, 12 urte nituelarik, begiz jota nuen neska flandestar batek bultzatuta, Flandesera hizkuntzaren lehen hitzak ikasi nituen. Gero, Belgikarekin aspertu ondoren, Gernikara joan ginen eta bi oporraldi horietan bertan ezagutu nituen lagunekin, hasi nintzen kalean gaztelania ikasten. Eta bertan ere izan nituen euskararen inguruko nire lehen ikasgaiak: euskaraz ongi zekien Muxikako lagun bati eskatu bainion Mikel Laboak egindako kantu batzuen hitzak itzultzea. Itzulpena zaila zen berak eta koadrilako beste inork ingelesa ez zekielako, eta nik gaztelaniarekin oraindik ere erdipurdika nembilelako. Azkenean, nahiko ondo moldatu ginen ingelesa, gaztelania eta frantsesaren arteko nahasketa erabiliz.

Artean, Alemanian politika eta gizarte mailan gertatzen zen fenomeno honek, alegia, kanpoko errealitatei zuzendutako jarrera zabaltzaileak, hizkuntza sisteman ere izan zuen bere isla. Eskolan atzerriko hizkuntzei garrantzi handia ematen zitzaaien hasieratik eta irakasgai horiek ere normalean gainditzeko zailenetarikoak izaten ziren. Horrekin batera, eskoletako arduradun gehienak ere saiatu ziren guri ikasleoi ikasketen erabilgarritasuna erakusten. Horrela, esate baterako, ingelesa eta latinarekin batera frantsesa ere ikasten genuenok, urtean behin Parisko ikastetxe bateko ikasleekin egun batzuk pasatzeko aukera izaten genuen: urte batean Parisen, bertako ikasle baten familian, eta hurrengo urtean geurean, gure eskolan eta gure familietan. Nik gogoan dut horrela ikasgeletatik at egindako esperientziek asko motibatu nindutela frantsesa ongi ikasteko eta horretarako ahalegin bereziak egiteko. Beraz, eta lehengo

Ikerkuntza ororen helburua nazioartemailako sare zientifikoetan sartzea eta bertan bere emaitzak beste ikerlariekin kontrastatzea denez, jatorri desberdinetako ikerlariek elkarrekin komunikatzeko hizkuntza aukeratu behar zen.

Momentuz, ez da ikusten ikerkuntza iparamerikarrarekin lehiatu lezakeen unibertitate sistematik, eta beraz, ingelesak ere jarraituko du nazioartemailako hizkuntza zientifikoa izaten.

Hizkuntza bakarreko unibertsitateak itzuliko ez den iragana dira.

Etorkizuna eta lehiakortasuna izan nahi duten unibertsitateak halaberrez eleanitzak izango dira.

Unibertsitate elebakarrak iraganeko fenomenoak diren bezalaxe, euskara hutsez lan egingo lukeen unibertsitatea ere anakronismo hutsa bailitzateke.

1998/99 ikasturtean, %26,24k euskal taldeetan egin baldin bazuen lehen matrikula, 2007/8an %45,37a izan da.

tesiarri eutsiz, esango genuke nekez lortuko dugula Unibertsitate eleaniztza ahalik eta lehen bai hezkuntza mailan zein arlo pribatuan egin beharreko funtsezko lana egin gabe.

5. UNIBERTSITATEA ETA HIZKUNTZAK: ATZO, GAUR ETA BIHAR

Historian zehar, Europako unibertsitateek bilakaera garrantzitsua ezagutu dute hizkuntzen erabilerari dagokionez. Erdi Aroko unibertsitate zaharrenek latina erabiltzen zuten nagusiki *lingua franca* bezala. Hori logikoa zen Elizak zeukan eragina eta unibertsitateen izaera guztiz elitista zela eta. Hori joan zen aldatzen Luteroren ideia berritzaileei esker lekuan lekuko hizkuntza nazionalak, batez ere beraien erregistro idatziak, baloratu eta arautu zirenean. Ondoren, eta bereziki Wilhelm von Humboldttek sortutako Unibertsitate-ereduari esker, unibertsitateek irakaskuntzaz gain, ikerkuntzari ere gehiago ekin ziotenean, beste ikuspuntu batetik sortu zen hizkuntzaren arazoa: ikerkuntza ororen helburua nazioarte-mailako sare zientifikoetan sartzea eta bertan bere emaitzak beste ikerlariekin kontrastatzea denez, jatorri desberdinetako ikerlariak elkarrekin komunikatzeko hizkuntza aukeratu behar zen. Aukeraketa honetan, aldagai nagusienetarikoa bat arlo zientifiko jakin batean burututako ikerkuntzaren indarra, eragina eta jatorri geografikoa izan ohi da. Bigarren Mundu Gerra baino lehenago, Alemania izan zen zientzia-sortzaile nagusia, batez ere natura zientzietan, baina baita ere zuzenbidea bezalako beste arlo batzuetan. Horri esker, alemana bihurtu zen gehien erabiltzen zen hizkuntza ikerlarien arteko bilkuretan. Gerraren ostean, besteak beste punta-puntako hainbat zientzialari judutar hil edo erbesteratu zirelako, Alemaniak galdu zuen aitzindari paper hori Amerikako Estatu Batuen mesedetarako, eta horren ondorioz ingelesa bihurtu da *lingua franca* nazioarte mailako ikerkuntzan. Eta hauxe ere da gaurko egoera. Momentuz, ez da ikusten ikerkuntza iparamerikarrarekin lehiatu lezakeen unibertsitate sistemarik, eta beraz, ingelesak ere jarraituko du nazioarte mailako hizkuntza zientifikoak izaten. Baina horrek, jakina, ez du esan nahi ingelesa gure unibertsitateetan hizkuntza bakarra izan beharko lukeenik. Etorkizunari buruzko nire tesia da, gizarte mailan bezalaxe, unibertsitateak gaur baino eleaniztunagoak izango direla eta alor eta egoeraren araberrako hizkuntza erabilera egingo dela. Panorama honetan, euskarak zein paper izango du edo izan beharko luke unibertsitatean?

6. EUSKARA UNIBERTSITATEAN

Hasteko, baieztapen orokor batekin erantzungo genioke planteatutako galderari. Izan ere, azken urteotan, Europako erakundeek hezkuntzarloan egindako ekimen eta ahalegin guztiak bat baitatoz helburu jakin

batekin, Europako unibertsitateetan —eta baita beste hezkuntza esparruetan ere— eleaniztasuna landu eta finkatzeko helburuarekin, hain zuzen ere. Politika honen abiapuntua Europako Batzordeak 1995ean argitaratutako “Liburu Zuria” izan zen (“Irakatsi eta ikasi – gizarte kognitibo baten bidean”).⁴ Bertan argi eta garbi finkatu zen hizkuntzen ikasketa hezkuntza politika ororen lehentasunetariko bat bezala. Ondorengo urratsak Sokrates, Leonardo da Vinci eta Erasmus programak izan ziren. 2001. urtea “Europako hizkuntzen urtea” izendatu izan zen, eta bi urte beranduago Europako Batzordeak plangintza zehatz bat aurkeztu zuen, “Hizkuntzen ikasketa eta aniztasuna sustatzeko” plangintza, hain zuzen.⁵ Ekimen horiekin batera, 1999an abiatu zen Bolognan Europako Unibertsitate eta Ikerkuntza eraikitzekeko prozesu luze bezain sakona. Zer esanik ez dago, prozesu honek ikasle, irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna bultzatzea helburutzat baldin badu, hori nekez lortuko dela unibertsitate guztietan Europako hizkuntzen ikasketa bultzatu eta sakondu gabe. Beraz, eta hauxe litzateke, lehengo tesia: hizkuntza bakarreko unibertsitateak itzuliko ez den iragana dira. Etorkizuna eta lehiakortasuna izan nahi duten unibertsitateak halabarrez eleanitzak izango dira.

Tesi hau zuzena bada, euskarak unibertsitatean eduki beharko lukeen presentziari ere eragiten dio zentzu jakin batean. Izan ere, unibertsitate elebakarrak iraganeko fenomenoak diren bezalaxe, euskara hutsez lan egingo lukeen unibertsitatea ere anakronismo hutsa bailitzateke. Gure artean zenbaitzuk bultzatzen duten proiektu hori, nire uste apalean bederen, zaharkituriko erromantizismo ideologiko bati gehiago zor dio hotzean egindako analisi funtzional bati baino. Agian, orain dela 30 urte logika gehiago edukiko zukeen aldarrikapen honek gaur baino. Artean, euskararen egoera oraindik oso ahula zen eta bere presentzia bermatzeko protekzionismo zorrotza, behar bada, ezinbesteko estrategia bakarra izan zen. Gaur egun, ordea, egoera diglosikoak arazoak sortzen jarraitzen badu ere, hizkuntza askoz ere sendoago dago, batez ere gazte jendearen artean. Dagoeneko, Euskal Autonomia Erkidegoan, behintzat, 2006ko datuen arabera, zenbat eta gazteagoak, hainbat eta elebidunagoak dira biztanleak. 25 urte baino gutxiago duten adin-taldeetan, elebidunak dira gehiengoak, 15 urte baino gutxiago duten gazteen artean %70etik gora dira elebidunak.⁶ Beste datu garrantzitsu bat: Euskal Herriko Unibertsitatean lehen matrikula egiten duten ikasle berrien artean ere gora joan da etengabe elebidunen kopurua eta, aurreikuspenen arabera hemendik gutxira ikasle gehiago matrikulatuko dira euskal taldeetan erdal taldeetan baino. Bilakaera argia da: 1998/99 ikasturtean, %26,24k euskal taldeetan egin baldin bazuen lehen matrikula, 2007/8an %45,37a izan da.⁷ Hori guztia dela eta, beste toki batean idatzi nuen bezala⁸, Euskal Herriko Unibertsitatean ere aspaldi iritsi da momentua euskara indioen erreserba batean itxi eta babesteko tentazioa betirako ahazteko eta hizkuntzen erabileraren plangintza arrazional, egingarri eta eraginkorra diseinatu eta garatzeko.

Graduetako ikasleak etorkizunean ere gehien bat bertakoak izango direnez, bertako bi hizkuntza ofizialak izango dira nagusi.

Etorkizunari begira agian planteatu beharko litzateke irakaskuntza sistema bikoitz hori malgutzea, euskal adarrean gaztelera eta beste hizkuntzaren bat edo bestea sartzea, eta gaztelaniazko adarrean beste horrenbeste egitea zenbait irakasgai sartuz euskaraz, ingelesez edo frantsesez.

*Alde batetik, nazioarte
mailako kontrasterik
gabe, ez dago punta
puntako ikerkuntzarik.
Baina, beste alde batetik,
normalizazioaren bidean
dagoen euskara bezalako
hizkuntza batek
ezinbestekoa ditu
ikerlarien ekarpenak
hizkuntza horren
erregistro zientifikoak
landu eta sendotzeko, hau
da, azken finean
hizkuntzaren dimentsio
jasoa landu eta
aberasteko.*

Plangintza honen ardatz nagusia nire ustez hizkuntzen erabilera asinkronikoak izan beharko luke. Erabilera asinkronikoa esparru desberdinetan hizkuntza desberdinak eta maiztasun desberdinarekin erabiliko lirateke-elako. Ondokoa litzateke etorkizuneko mapa:

a. Graduetako irakaskuntza

Graduetako ikasleak etorkizunean ere gehien bat bertakoak izango direnez, bertako bi hizkuntza ofizialak izango dira nagusi. EHUK, unibertsitate publikoa eta elebiduna izanik, gizarteak eskatzen duenari kasu egin behar dio. Hori dela eta, euskarazko irakaskuntzaren eskaerak eten gabe gora egin duenez, ikasketak euskaraz egiteko aukera gradu titulazio guztietan bermatzea du helburu. Historikoki, aukera hori euskara hutsean funtzionatzen duen euskal adarraren garapenaren bitartez bideratu ohi da. Lehen aipaturiko argudioetan oinarrituta, ordea, etorkizunari begira agian planteatu beharko litzateke irakaskuntza sistema bikoitz hori malgutzea, euskal adarrean gaztelera eta beste hizkuntzaren bat edo bestea sartzea, eta gaztelaniazko adarrean beste horrenbeste egitea zenbait irakaskai sartuz euskaraz, ingelesez edo frantsesez. Hizkuntzen arteko bereizketa hori apurtzeko egingo den beste bide bat ere badago: alegia, unibertsitate desberdinen artean antolatuko diren titulazio konpartituak.

b. Graduondoko irakaskuntza

Bolognako prozesuak mugikortasuna areagotuko duenez, aurreikusitako daiteke etorkizunean, gaur baino gehiago, graduondoko ikasketetan kanpo eta atzerriko ikasle gehiago ibiltzea. Ikasketa horiek, gainera, neurri esanguratsu batean ikerkuntzarekiko lotura dutenez, logikoa da eremu honetan ingelesaren presentzia handiagoa izatea. Gainontzeko hizkuntzen erabilera finkatzeko ez dago horrelako arau orokorrik, hemen aldagai asko aztertu behar baitira: ikasleen jatorria, tituludunak jasoko dituen lan-merkatua, tituluaren garrantzia edota lotura euskal gizartearekiko, besteak beste.

c. Ikerkuntza

Graduondoko irakaskuntzari buruz esandakoa areagotu egiten da ikerkuntzaren eremuan. Hemen bi faktore hartu behar dira kontuan batez ere. Alde batetik, nazioarte mailako kontrasterik gabe, ez dago punta puntako ikerkuntzarik. Baina, beste alde batetik, normalizazioaren bidean dagoen euskara bezalako hizkuntza batek ezinbestekoa ditu ikerlarien ekarpenak hizkuntza horren erregistro zientifikoak landu eta sendotzeko, hau da, azken finean hizkuntzaren dimentsio jaso landu eta aberasteko. Hori dela eta, hizkuntzen arteko indar-korrelazio desorekatua kon-

tuan hartuta, ez litzateke egokia izango unibertsitate eremu honetan hizkuntzen erabilera soilik eskaria edo merkatuaren esku uztea. Euskara euskal kulturaren ondare nagusietariko bat bezala bultzatu eta garatu nahi bada, euskararen erabilera sustatuko duten neurri bereziak hartzea komenigarri bezain beharrezkoa dela iruditzen zait. Halere, nahiz eta neurri horiek hartu, logikoa litzateke euskara, ikerkuntzaren sorkuntza prozesuan, normalean bigarren edo hirugarren mailako hizkuntza izatea. Ikerkuntzaren hedatze edo gizarteratze prozesuan, ordea, bere papera askoz ere garrantzitsuagoa izango da. Unibertsitateko ikerlariak beraien ikerketaren fruituak publiko zabalago bati aurkezterakoan, euskararen presentzia zabalagoa izango da publiko horren parte zabal bat ere euskalduna den neurrian. Zientziaren euskarazko dibulgazioak, gizartearen jakintzari ez ezik hizkuntzaren normalizazioari ere ekarpen handiak egingo dizkio aldizkari berezietan, telebista eta irratiko programetan edota hitzaldietan.

d. Administrazioa eta zerbitzuak

Begi bistakoa da ezin dela unibertsitate eleanitza garatu bertako pertsonala eta zerbitzuak gai ez badira hizkuntza desberdinetan lan egiteko. Azken urteotan, EHUa ahalegin handiak egin izan dira unibertsitateko langileak euskalduntzeko eta horrela gutxienez bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko. Arrakasta, ordea, ez da izan ahaleginen tankerakoa. Eremu honetan ere euskaraz gain beste hizkuntzaren bat edo bestea sartzea, beraz, epe ertain eta luzerako helburua izango litzateke. Arazoak antzak eta konplexuak badira ere, unibertsitatean eta baita bestelako administrazio publikoetan egindako esperientziatik ondorio bat ateratzea posible da ordea: elebitasuna edo eleaniztasunaren aldeko aurrerapausoak errazagoak izaten dira alde aurretik definitutako lanpostu gakoei hizkuntza eskakizunak esleituz eta horien arabera pertsonala aukeratuz, lanpostu horietan dauden langileei hizkuntzak ikastera behartuz baino.

Eta hemen bigarren gogoeta bat, agian ez oso ortodoxoa, egitea ere komenigarria iruditzen zait. Gaur egun, EHUa eta bestelako administrazio elebidunetan dokumentu ofizial guztiak bi hizkuntza ofizialetan argitaratzen dira. Dokumentazio gehiena, ia guztia esango genuke, gaztelaniaz sorten denez, baliabide ikaragarriak irensten dituen itzulpen makina erraldoia elikatu behar izaten da egunez egun, nahiz eta jakin badakigun euskaldunon artean ere ohitura handiagoa dagoela dokumentuak jatorrizko bertsoan, hau da, gaztelaniaz, irakurtzeko itzulitako euskarazkoan baino. Ez al litzateke askoz ere komenigarriagoa izango *itzulpenitis* hori zertxobait mugatzea, dirua aurrezte eta diru hori euskararen sustapenerako eraginkorragoak diren bestelako ekimen batzuetan inbertitzea? Itzultzaileak nirekin haserretu egingo diren arren, uste dut gogoeta horri pare bat buelta ematea ez legokeela gaizki.

Ez al litzateke askoz ere komenigarriagoa izango itzulpenitis hori zertxobait mugatzea, dirua aurrezte eta diru hori euskararen sustapenerako eraginkorragoak diren bestelako ekimen batzuetan inbertitzea?

Hizkuntza, kasu honetan euskara, sarri askotan gure gizartearen gain, hiritarron borondatearen gain dagoen balore transzendentala, sasi-erlijioso bezala hartzen da, eta hori egiten duena eztabaida askerako guztiz baldintzaturik gelditzen da.

Normaltasuna, gaur egun ere oraindik jende askok euskararen presentzia gure gizartean arrotza eta ez normaltzat jotzen duelako.

7. HIZKUNTZEN INGURUKO EZTABAIDA: SEKULARIZAZIO ETA NORMALTASUNAREN ALDEKO ALDARRIKAPENA

Arestian aipatu dugun bezala, hizkuntzak komunikaziorako tresna hutsak baino askoz ere gehiago dira, gure mundua interpretatzeko, gure sentimenduak adierazteko eta gure esperientziak hurrengo belaunaldiei transmititzeko ezinbesteko kultura baliabideak baitira. Hizkuntzak hitzak eta doinuak diren bezalaxe, sentimenduak, nortasuna eta identitatea ere badira. Hori dela eta, hizkuntzen erabileraren inguruko eztabaida beti zaila izaten da, eztabaida horretan buruak ez ezik, bihotzak ere parte hartzen duelako. Zailtasun hori areagotu egiten da, gizarte orok berezkoak dituen ohiko arazo eta gatazkez gain bortizkeria totalitario bat eztabaida demokratiko eta aske guztiak pozoitzen saiatzen denean.

Halere, zailtasun eta eragozpen guztien gainera posible bezain beharrezkoa da hizkuntzei buruzko eztabaida aurrera eramatea, eta EHUn urte batzuk daramatzagu bide horretan. Eztabaida horren bi kontzeptu gakoak hauexek lirateke nire ustez: sekularizazioa eta normaltasuna. Hizkuntza, kasu honetan euskara, sarri askotan gure gizartearen gain, hiritarron borondatearen gain dagoen balore transzendentala, sasi-erlijioso bezala hartzen da, eta hori egiten duena eztabaida askerako guztiz baldintzaturik gelditzen da. Zentzu honetan eztabaidaren sekularizazioa bultzatu behar da, denok kontzienteak izan gaitzean hizkuntzaren garapena eta erabilera, azken finean, ez dela berezko helburu bat, hiritarron borondate demokratikoak ezartzen duena baizik. Euskal hiritarrok euskara garatu eta erabili nahi ez badugu, hizkuntza politika guztiak alperrik izango dira, baita unibertsitatean ere.

Bestetik, bigarren hitz gakoa normaltasuna da. Normaltasuna, gaur egun ere oraindik jende askok euskararen presentzia gure gizartean arrotza eta ez normaltzat jotzen duelako; jende horrek euskararen aldeko neurri guztiak salbuespentzat jotzen dituelako, eta ez gizarte demokratiko baten gehiengo zabal batek planteatzen dituen eskariak bezala; normaltasuna behar da, baita ere, euskaldun askok, euskararen indarra eta sendotasuna gutxietsiz, ohiko protekzionismo itsua alde batera utzi gabe euskara indioen erreserban, hori bai: ondo zainduta, giltzapean utzi nahi dutelako.

Muturretako jarrera horiek gainditzeak ez du esan nahi epelkerian erortzea, elebitasuna eta eleaniztasunaren aldeko oinarriak jartzea baizik, eta hori gizartea zein unibertsitatearentzat onuragarria baino ezinbestekoa da 21. mende honetan.■

OHARRAK

1. Castells, Manuel: *La era de la información*, 3 ale, Madrid: Alianza, 3. argitalpena, 2005-6.

2. Weber, Eugen: *Peasants into Frenchmen. The Modernization of Rural France, 1870-1914*, Stanford: Stanford U.P. 1976.

3. Ikus. UNESCOk 2009an argitaratutako *Atlas of the World's Languages in Danger*, <http://www.unesco.org/culture/endangeredlanguages>.
4. Ikus. http://europa.eu/documents/comm/white_papers/pdf/com95_590_de.pdf.
5. Ikus. "Mitteilung der Kommission an den Rat, das Europäische Parlament, den Wirtschafts- und Sozialausschuss und den Ausschuss der Regionen. Förderung des Sprachenlernens und der Sprachenvielfalt: Aktionsplan 2004-2006", <http://eurlex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2003:0449:FIN:DE:PDF>.
6. Ikus. 2006 IV. *Mapa Soziolinguistikoa* (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaratua), Vitoria-Gasteiz, 2009, 37-40 ("Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera").
7. Ikus. *Unibertsitatea Zenbakietan*, http://www.ehu.es/p200-shstatct/eu/contenidos/estadistica/datos_generales/eu_general/estadistica.html.
8. "Indioen erresebatik ihesi. Euskara, 21. mendeari begira", in: *XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak. Batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008, 171-188 or.

*Normaltasuna behar da,
baita ere, euskaldun
askok, euskararen indarra
eta sendotasuna
gutxietsiz, ohiko
protektionismo itsua alde
batera utzi gabe euskara
indioen erreseban, hori
bai: ondo zainduta,
giltzapean utzi nahi
dutelako.*